

## **ALDE ZAHARRA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA (B ETXADIA, B17, B18 ETA B22 ERAIKUNTZA UNITATEAK)**

2015eko martxoaren 25ean egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak erabaki zuen 1-1 area -OR ALDE ZAHARRA- birgaitzeko plan bereziaren aldaketari behin betiko onespina ematea. Udalak abiarazi du espedientea eta B17, B18 eta B22 eraikuntza-unitateei eragiten die (Kale Nagusia 36 eta 38, eta San Frantzisko kalea 13 eta 15). Onartu den dokumentua 2015eko martxoko testu bategina da, Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak idatzitakoa.

Akordioaren testu osoa eta haren aurka ezarri daitezkeen errekurtsioak 2015eko apirilaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (70 zenbakia) argitara eman dira.